



Salvat Monho olerkariaren metrika

Jean Haritschelhar

► **To cite this version:**

Jean Haritschelhar. Salvat Monho olerkariaren metrika. Lapurdum, Centre de recherche sur la langue et les textes basques IKER UMR 5478 CNRS, 2004, pp.135-147. artxibo-00083432

HAL Id: artxibo-00083432

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00083432>

Submitted on 30 Jun 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Salvat Monho

olerkariaren metrika

Jean HARITSCHELHAR

Michel de Montaigne Bordeaux 3 Unibertsitatea

Euskaltzainburua

IKER 5438 CNRS

Duela hogeita hamar urte baino gehiago Ikas batasuneko zuzendaritzak erabaki zuen argitaratzea Piarres Lafitte euskaltzainak egin zuen liburua Salvat Monho (1749-1821) olerkariaren kantuak biltzen zituela osoki esku-idazki bati esker. 1972an agertu zen liburua *Poèmes basques de Salvat Monho (1749-1821), présentés, transcrits, traduits et annotés par Pierre Lafitte de l'Académie Basque*, Editions Ikas, Musée Basque, rue Marengo, 64-Bayonne, 1972.

Orotarat, 51 kantu dira, 16 profanoak eta 35 elizako kantikak. Gutitan, euskal literaturan, aurkitzen dira hainbeste kantu idazle bakar batek eginak eta obra oso horretaz baliatuko naiz Salvat Monho olerkariaren metrikaren aztertzeke.

Salvat Monho Izturitzen sortu zen 1749an eta gazte zelarik umezurtz gelditu zen, zortzi urte zituela bakarrik. Asma daiteke aski gazte sartu zela Larresoroko seminario berrian, berrikitan eraikia baitzuen Daguerre apezak. Dakiguna da apeztua izan zela 1774ean, hogeita bost urte zituela.

XVIII. mendeko apez horietarik da Salvat Monho, gizon ikasia, latina eta frantsesa jakinki behar den bezala, bi hizkuntza horiek baliatuak baitziren bereziki orduko erakaskuntzan.

Bada Frantzia hezkuntzari buruz kezka haundi bat. Fénelon artzapezpikuak idazten du *Traité de l'éducation des filles*, beraz nesken irakaskuntzarako gidaliburua, eta gerorago, izendatu zutelarik Luis XIV-ren bilobaren erakasle, harentzat idatzi zuen *Les aventures de Télémaque*. XVIII. mendearen bigarren zatian Jean-Jacques Rousseau-k idazten du *L'Emile*, eleberrri pedagogikoa (1762), nahiz ez zituen azaltzen zituen ideiak aplikatu bere haurrei. Argien mendean gaudelarik ikus daiteke kezka berbera agertzen dela Euskal Herrian, lekuko dela Sarako Etxeberriren liburua : *Escual Herri eta Escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin icasteco* eta, apezan hobeki moldatzeko, Larresoroko seminarioaren idekitzea.

Gizon ikasia zela Salvat Monho, ez da dudarik ; Bacchus-i eskaintzen dio kantu bat oso alegera, zinez ostatuko kantua, arnoaren gozoa gorai patzen duena, tristuraren kasatzeko erremedio ona :

*Dugun edan berriz ere ; beti dut aditzea,
Bien ondolik on dela hirugarren kolpea ;
Oraino triste badire gure bihotz barrenak
Alegeratuko ditu menturaz laugarrenak.*

"Poeten errenkurak Apolonen kontra" deritzan kantuan adiarazten du gaizki bizi direla olerkariak :

*Parnasean dabiltzanen sabelak eta moltsak
Airez hantzen ez badire, ardura dire hutsak.*

eta hortakotz agertzen ditu bere kezkek. Bi etsenplu horiekin ikus daiteke nor zen Salvat Monho.

Azkaingo menetei ihardesten dielarik hiru gizon sakratu dituztelakotz koplatu, bera barne, argi eta garbi erakusten du haren kontra agertu diren jorraldiak eta gezurrak, haien artean "sobera dakiela", "ederki mintzo dela".

<i>Orai ere non nahi</i>	<i>Sobera dakiela</i>
<i>Monhoren omenari</i>	<i>Ederki mintzo dela !</i>
<i>Azkaindarren gezur tzarrek</i>	<i>Zeren berek ez dakiten</i>
<i>Ez hango andren biltzarrek</i>	<i>Askotan zer derasaten</i>
<i>Ez diote garabik</i>	<i>Diote iratxaki</i>
<i>Egin bidegaberik.</i>	<i>Eta pleintan ezarri.</i>

Apez ikasia beraz, Salvat Monho-k bi aurpegi agertzen ditu. Kantikak idatziz erakusten du eliza gizon zintzoa dela, doktrina behar den bezala azalduz, baina denbora berean ezagutu du frantses iraultza, haren kontra jokatu da zin egileen aurka, sortuz kantu garratzak noiztenka, umorez beteak askotan. Zinez XVIII. mendeko olerkari bat da, bere garaian murgildua, kantua baliatuz bere ideien barreiatzeko, kantuak baitzuen, bereziki Frantzian, eragin handi bat.

Ohidurari jarraikiz

Ohidura zahar bat badago Euskal Herrian, bertsulariena bereziki, kantuak sortzen direla aire ezagun zahar bat segituz. Ez dute besterik aitortzen kantu-egileek derasatelarik :

Ahaire zahar huntan bi bertset berririk.
(Arengaraiko primaren khantorea)

Mendiague batek ere idazten du :
Airea zahar eta kantorea berri
Sujetak ere dire anhitx xarmagarri.

"Arbasoak" deritzan olerkian hauxe dio Elizanburu Saratar koplari famatuak :

Mila bat zortzi ehun eta laueta hogoiean
Bertsu berri hauk eman dire aire zahar batean.

Ohidura zaharrari jarraiki zaio Salvat Monho zazpi kantutan, bereziki kantu profanoetan sei direlarik. Horiek dira :

- *Chanson bachique* (4 bertsu),
- *Urruñako Jaun erretorari* (15 bertsu),
- *Garat eta Iturbiderentzat* (12 bertsu),
- *Ihardestea* (8 bertsu),
- *Garat-ek Erregeri hiltzeko arrasta irakurtu ondoan* (bertsu bakarreakoa),
- *Poeten errenkurak Apolon-en kontra* (8 bertsu).

Kantu horietan lau neurtitzeko bertsu baliatzen du, neurtitz bakoitzak 15 silaba dauzkala, bi zatitan emana 8+7, eten batekin zortzigarren silabaren ondotik.

Aspaldian ezagutuak dira bai bertsuak eta bai neurtitzak euskal literaturan Etxeparerekin hasi-eta, segitzen dutela XVII. mendean Etxeberri Ziburukoak, Harismendi-k, Hirigoity-k, Argainaratz-ek.

Egia da ere 8+7 neurtitzak hatzematen ditugula Hegoaldeko kantu zahar batean :

*Mila urte igarota ura bere bidean ;
Gipuzkoarrak sartu dira Gazteluko etxean,
Nafarrokin batu dira Beotibarren pelean.*

Etxepareren neurtitzez Oihenart-ek zion ez zirela holakorik aurkitzen beste literaturetan : *"Ce sont tous de Vers de quinze syllabes, dont nous ne trouverons point d'exemple parmi les ouvrages des poètes françois, Italiens et Espagnols (ches lesquels Les plus longs Vers sont les alexandrins féminins contenant treize syllabes) et parmi les Latins Encore moins* (Gure Herria, 1967, 227-228 or.) "

Hamahiru silabako neurtitza aurki daiteke ere Salvat Monho-ren "Erregeren otoitza" deritzan kantuan lau neurtitzeko bertsuetan, etena delarik zazpigarren silabaren ondotik (7+6).

Lau neurtitzeko bertsuari buruz bi ohar :

1. Gehienik Monho-k erabiltzen duen bertsuak da lauko ertaina (8+7), sei aldiz, eta aldi bat bakarrik lauko ttipia (7+6). Ez du sekulan erabiltzen lauko nagusia (10+8), hain erabilia izanen delarik XIX. eta XX. mendeetan.

2. Ez du bertsularien ohidura segitzen errima berbera erabiliz lau neurtitzetan. Frantses modura doa bi errima parekatuak (a a b b) baliatuz, salbu "Ihardestea" deitzen den azken bertsuak :

*Idalgotan sartu gabe direla sinetsiak
Gure osebak direla edo gure kusiak,
Deputatu egin tugun Garat anaia biak
Ardiesten badituzte gure galde guziak.*

Hori da salbuespen bakarra.

Ez da lehena hola jokatzeko dena. Bada, XVII. mendetik hasiz, holako ohidura Iparraldeko euskal idazleetan, hain zuzen, jadanik aipatu ditudan olerkariak finkatua, Etxeberri Ziburukoak, Harismendi-k, Hirigoity-k. Horretan datza ene ustez bertsolaritza eta olerkigintza diferentziarik nabarmenena, olerkariak frantses metrika dutela eredu hartzen. Argi dago bi ohidura desberdin aurkitzen direla : alde batetik neurtitz luzearen erabilera izan dadien (8+7)-koa edo (7+6)-koa, baina errima parekatuekin eta ez errima bakarra baliatuz.

Sorkuntza berria

Kantua kantu, aireak edo doñuak manatzen du. Aspaldiko ohidura da *"Aire zahar batean bertsu berriak"* paratzea eta ez du besterik egin Salvat Monho-k, ez baitu, dakidanez, aire berririk sortu. Askotan, baina ez beti, aitortzen du berak zein aire baliatu duen kantu baten emateko. Hain zuzen, interesgarria da jakitea zein diren, beraz, nola sortu den kantua.

Hamazazpi kantu eginak dira frantses aire bat baliatuz, baina orotara hamar airetan :

1. *De tout un peu* (lau aldiz),
2. *Ah ! vous dirai-je maman*,
3. *Dans cette étable* (hiru aldiz),
4. *La marche du régiment du Perche* (bi aldiz),
5. *Il faut attendre avec patience*,
6. *Je viens à vous Seigneur : instruisez-moi*,
7. *Foudres, éclairs, trompette et tonnerre* (bi aldiz),
8. *Avec les jeux dans le village*,
9. *Tout n'est que vanité*,
10. *Vive Jésus, vive sa croix*.

Latin kantuetarik bi aire :

- *Lauda Sion*,
- *Te Deum laudamus*.

Aire euskalduna baliatuz egin ditu hamar kantu zortzi aire direla bakarrik :

1. *Beltzuntzeren koplén airean* (bi aldiz),
2. *Atzar gaiten atzar lotarik*,
3. *Amodiorik baduzula ez ziautazu iduri*,
4. *Lauda zagun misterio handia*,
5. *Joan zaut loa, joan zaut jana* (bi aldiz),
6. *Pelegrinen airean*,
7. *Dezagun kanta gogotik*,
8. *Zerutik jautsi ziren bitima garbia*.

Aire horietan dudatan ezartzen ditut bi aire bederen : "Beltzuntzeren koplén aire" delakoa, koplá horiek beste aire batean eginak izan daitezkeelakotz eta "Atzar gaiten atzar lotarik" eguberriko kantu ezaguna, Etxeberri Ziburukoarena, oraindik kantatzen dena (9+8) duen egituraren gatik. Hirugarren bat izan daiteke "Pelegrinen airea", hau ere (9-4-9-4-8-5-8-7) duen egituraren gatik, aspaldian ezagutuak baitira frantses pelegrinen kantuak, hala nola Troyes hiriko bilduman. Adibidez :

*Quand nous fûmes à Saint Dominique
Hélas ! mon Dieu !
Nous entrâmes dedans l'église
Pour prier Dieu ;
Le miracle du pèlerin
Par notre adresse
Avons oui le coq chanter
Dont nous fûmes bien aise.*

Orotara 29 kantu dira aire ezagutu batean kantatzen direnak, 20 direlarik aire horiek. Gelditzen dira 22 kantu aire ez ezagutu batekin kantatuak, haien artean lauko ertaineko sei kantuak, aire euskaldun batean asma daiteken bezala eta lauko ttipikoa.

Halere nabaria da frantses doñuen eragina eta horrek ondorioak baditu kantuen egituran. Azter ditzagun bertsu bakoitzean nola uztartzen diren neurtitzak.

1. Hiru neurtitzeko bertsea

"*Lauda Sion*" deitzen den kantuan agertzen da bertsu hau : 18 bertsu dira 8-8-7 egiturarekin laukoa agertzen dela 8-8-8-7 lau bertsutan eta bostekoa 8-8-8-8-7 azken bi bertsetan. Egia erran Salvat Monho-k segitzen du latinezko kantua, bai hitzetan eta bai metrikan. Alabainan parekatzen dira bertsuak lehen 18etan a a b c c b d d e f f e ereduarekin segituz.

*Sion, Salbatzaile ona,
Gidari eta artzaina,
Lauda zazu kobletan*

*Ez gupidets ein ahala
Zeren ezin aski lauda
Baidaiteke sekulan.*

Laukoa hasten da "*Fracto demum sacramento*" latinez, "*Ostia hautsirik ere*" euskaraz a a b ereduarekin.

*Ostia hautsirik ere,
Ez dudan egon batere
Hanbat dela zaittoan
Nola baida osoan.*

Azken bi bertsuak hasten dira "*Bone pastor panis vere*" hitzekin, "*Jesus artzain Jesus ogi*" euskaraz a a b b a egiturarekin.

*Guziz zuhur, boteretsu,
Zuk hemen hazten gaitutzu :
Hor ere, mahain berean
Zure sailduen artean
Otoi plaza gaitzazu*

2. Lau neurtitzeko bertsuak

Jadanik ikusia dugu lauho ohikoa, errima bakarrekilakoa. Beste mota batzu agertzen dira Monho-ren olerkietan. "*Eskandala*" deritzana, Mentaberri apez zinegilearen kontra egina da bederatzi eta zortzi silabako neurtitzekin (9-8-9-8) errima gurutzatuekin (a b a b). Lehenbiziko bertsea errepikatzen da eta bosgarren bertsuraino errepikatzen da eta gero beti "*Eskandala izigarria*"-rekin hasiz, aldatuz badoa, errepika gisa gelditzen delarik, egitura bera atxikiz (9-8-9-8) eta (a b a b). Airea : "Atzar gaiten atzar lotarik" ongi hautatua da Bardozeke jendeen atzarrazteko, ikus dezaten zer diren apez zinegileak Mentaberri eta Tisso.

*Orai artean Bardoztarrek
Lege bat zuten segitzen.
Bainan orai Jainkotiarrek
Bertzela dute pentsatzen.*

Errepika

*Eskandala izigarria
Dugu Bardozen ikusi;
Mentaberrik dauku herria
Partitu eta nahasi.*

"*Jaunaren hitzaz*" deritzana beste gisara egina da. Egitura (8-9-8-9) errima gurutzatuekin (a b a b). Errepika bat dauka, zortzi silabako bi neurtitzeko errima parekatuekin (c - c).

*Laster eigin predikura :
Jauna da han mintzo zaikuna
Eta haren gantzudura
Bihotzak hunkitzen tuena.*

Errepika

*Laster eigin predikura,
Graziaren ur-burura.*

Errepikaduna ere "Ifernuaz eta hango penaz" neurtitzak direlarik zortzi eta zazpi silabakoak (8-7-8-7) errima gurutzatuekin (a b a b) errepikak eskaintzen dituelarik bi neurtitz errima berarekin, sei eta zazpi silabadunak (6-7) eta (c - c).

*Kreatura damnatua,
Hire penak zer diren,
Zer den hire infernua
Zenbat dukan sofritzen.*

Errepika

*Erraguk, erraguk
Argitu nahi gaituk.*

Bi kantutan hautatuko ditu beste neurtitz batzu, hamaika eta hamar silabakoak, aldizkatuz neurtitzak : "Purgatorioaz" delakoan (11-10-11-10) beti errima gurutzatuekin (a b a b).

*O arima Jainkoaz onetsia,
Orroit hadi badela leku bat
Hemen arras Jaunaren justizia
Satifatu ez duenarentzat.*

"Predikua hasterakoan" aldiz (10-11-10-11) atxikiz errima gurutzatuak (a b a b).

*Otoi, Jauna zuk argi gaitzazu,
Zuk bakarrik zure lege saindua
Progotxoski irakasten duzu
Bihotzetan ezartzen finkatua.*

Beste bi kantuk egitura berezi bat daukate. "Azken jujamenduak" eta "Te Deum laudamus" deritzanak eginak dira baliatuz hiru neurtitz ezberdinak (11-10-11-8) errimak gurutzatzen direlarik (a b a b).

<i>Aditzen da tronpeta lazgarria, Etorri da Jaunaren eguna Egun triste, egun lotsagarria Eta egun handiena (Azken jujamendua)</i>	<i>Egun, Jauna, gure bozkarioak Galdetzen tu leku guzietan Kanta ditzen zure laudorioak Himno eta kantiketan. (Te Deum laudamus)</i>
---	--

Beste mota bat eskaintzen du Salvat Monho-k "Jondoni Joani Batistaren laudoriotan" deitzen den kantuan nahasten dituelarik hamaika silabako neurtitzak bostekoarekin (11-11-11-5) errima gurutzatuak baliatuz.

*Mundu galdu hau erreparatzeko,
Kristo lurrerat etorri zaizkigu.
Egun Batista ongi laudatzeko
Garbi gaitzazu.*

3. Bost neurtitzeko bertsua

Kantu batetan bakarrik agertzen da bost neurtitzeko bertsua. "Ave Maria" delakoan nahasten ditu hamaika eta hamabi silabako neurtitzak bertsua bukatzen delarik sei silabako neurtitz batekin aurreko neurtitzaren bigarren zatia errepikatuz (11-11-12-12-6), baina kantu honetan errima parekatuak eskaintzen ditu (a a b b). Adibidez :

*Bete zaitu Jaunak bere graziaz,
Zurekin da izaitez, zuhurtziaz,
Emazten artean benedikatua
Zare, eta Jesus zuk eman fruitua
Zuk eman fruitua.*

4. Sei neurtitzeko bertsuak

Lau aldiz baliatzen du sei neurtitzeko bertsua. "Azkaingo menetei" eskaintzen dien kantuan zazpi eta zortzi silabako neurtitzak agertzen dira (7-7-8-8-7-7) eta ikusiz nola lerrotatzen diren errima parekatuez ornituak dira, beraz (a a b b c c).

*Hirur gizon sakratu
Ahal tuzte koplatu
Zenbait meneta ausartek
Edo debot hipokritek
Uztailaren bieko
Birjina ararteko.*

"Bekatorearen zortea" azaltzen duelarik lau neurtitz mota baliatzen ditu : zortzi, bost, lau eta zazpi silabakoak (8-5-8-4-8-7) errima parekatua lehen bi neurtitzetan, gurutzatua beste lauetan (a a a b a b).

*O zein den zorte tristea,
Bekatorea,
O zein den zorte tristea
Pentsa-zak maiz
Bekatuan bizitzea
Salbatu nahi bahaiz.*

Beste biek "Dohatsu egiazkoak" eta "Jainkoaren presentziaz" egitura bera daukate zortzi eta bederatzi silabako neurtitzen (8-9-8-9-8-8) errima gurutzatu eta parekatuez eginak (a b a b c c).

<i>Munduak aberatsenak</i>	<i>Abrahami Jaunak berak</i>
<i>Dagoka direla dohatsu;</i>	<i>Abisu hau eman zioen,</i>
<i>Ordean bertzela Jaunak</i>	<i>Egin zitzan bere obrak</i>
<i>Mendian erakatsi dauku :</i>	<i>Perfet izan nahi bazuen</i>
<i>Izpirituz pobre dena</i>	<i>Haren obedientzian</i>
<i>Erran du dohatsu dela.</i>	<i>Eta haren presentzian.</i>
<i>(Dohatsu egiazkoak)</i>	<i>(Jainkoaren presentziaz)</i>

5. Zazpi neurtitzeko bertsuak

Orotara zortzi kantu oso desberdinak doñuaren arabera eginak baitira. Hiru multzotan bil daitezke.

a) "Erromako gortetik" eta "Mentaberriren posesionetan sartzearen okasionea" eginak dira "Beltzuntzeren koplak" airean eta beraz egitura berbera daukate 7-7-6-7-7-6-6 aldizkatzen direlarik zazpi eta sei silabako neurtitzak errimak parekatuekin a a b c c b b.

*Erromako gortetik,
Aita Saindua ganik,
Jin dire berriak
Pontifo berrientzat,
Apez zin egilentzat,
Bihotz hautsgarriak
Eta latzgarriak.
(Erromako gortetik)*

*Gure eliza hartu
Eta handik kasatu
Gaitu Mentaberrik,
Etsaiek zitadela
Hartzen duten bezala,
Tropak ezarririk
Alde orotarik.
(Mentaberriren posesionetan...)*

b) Lau kantu, biga profanoak "Bardozen glub" eta "Distrikerat" eta biga elizakoak "Usaiako aktak" eta "O Betleem" oraindik kantatua den eguberriko kantua, horiek guziaz frantses aire bat "De tout un peu" segituz. Bainan ez dute egitura berbera ukanen. Iraultza denborakoak, lehenbiziko biak, berdinak dira lau, bederatzi eta zortziko neurtitzak nahasiz. (4-9-4-8-9-9-4) bertsu bakoitzean lau silabako neurtitza errepikatzen dela hiru aldiz errimak kurioski banatuz. a b a a b b a, errima besarkatuak agertzen direlarik azken lau neurtitzetan.

*Bardozen glub !
Bakearen gostuz badere
Bardozen glub
Egin nahi dute batzuk !
Zer ari diren balakite,
Egin nahi ote lukete
Bardozen glub ?
(Bardozen glub)*

*Distrikerat !
Lehen gizonak joan badire
Distrikerat
Apezen akusatzerat,
Zenbait dontzeila izan ere
Bardozetik joan omen dire
Distrikerat.
(Distrikerat)*

Egitura bera dauka "O Betleem"-ek neurtitzetan eta errimetan, berezitasun batzu aurki daitezke larik "Usaiako aktak" kantua ere errimetan. Alabainan lehenbiziko bertsu aurkitzen dugu a b a b c c a, bigarreanean aldiz a b a a b b a, bertze hiru kantuetan bezala.

*O Betleem,
Ala egun zure gloriak
O Betleem
Ongi baitu distiatzen !
Zu ganik heldu den argiak
Betetzen tu bazter guziak
O Betleem !
(O Betleem)*

*Sinesten dut
Elizak dagozkan egiak
Sinesten dut
Hala direla guziak.
Neronek ikusirik baino
Hark erranik segurkiago.
Sinesten dut.*

*Jauna baitan
Eman dut ene fidantzia
Jauna baitan,
Haren miseriakorian
Ediren uste dut bizia
Eta salbatzeko grazia
Jauna baitan
(Usaiako aktak)*

c) Azken multzoan daude elizako bi kantu "Justuaren fidantzia umilla" eta "Birjina sainduaren kantika", biak kantatzen direla "Joan zaut loa, joan zaut jana"-ren airean. Egitura bera beraz zortzi eta zazpi silabako neurtitzekin (8-7-8-7-8-8-7) errimak direlarik (a b a b c c b).

<i>Berant zaitut ezagutu</i>	<i>Ez dezaket sekretuan</i>
<i>O Jesus dibinoa;</i>	<i>Iduk ene gozoa :</i>
<i>Berantegi dut senditu</i>	<i>Erantzun bedi munduan</i>
<i>Zure amodioa;</i>	<i>Ene bozkarioa.</i>
<i>Zure karitateari</i>	<i>Mundu guziak behar du</i>
<i>Berant diot ihardetsi.</i>	<i>Ene baitan adoratu</i>
<i>Hau da ondikoa !</i>	<i>Jainko egiazkoa.</i>
(Justuaren fidantzia umilla)	(Birjina sainduaren kantika)

6. Zortzi neurtitzeko bertsuak (zortzikoak)

Zortziko hauetan neurtitz bakoitzak dauka bere errima, beraz egiazko zortzikoak da eta ez Hegoaldean deitzen dena.

Orotara 11 kantu dira, denek errimetan eskaintzen dituztela egitura berbera erran nahi baita errima gurutzatuak (a b a b c d c d). Egia da bertsu batzutan, bainan gutitan agertzen dela beste egitura bat (a b a b a b a b).

Zortzi eta zazpi silabako neurtitzez eginak dira haien artean zortzi kantu (8-7-8-7-8-7-8-7), bat profanoa : *"San Kasteteneko andregaiak Filipineko oilarrari"* eta beste zazpiak elizakoak : *"Apostoluen sinbola edo Credo"*, *"Bertute teologalak"*, *"Bertute moralak"*, *"Relisionaren bertuteaz"*, *"Gizonaren azken finak"*, *"Denboraren balioa"* eta *"Umilitatea"*.

<i>I. Oilar kruel, oilar bortiz</i>	<i>IV. Fedeaz giristinoa</i>
<i>O oilar fanfarruna !</i>	<i>Dohatu duenean,</i>
<i>Gure oiloak bi aldiz</i>	<i>Ezarri dio koroa</i>
<i>Alargundu tuana,</i>	<i>Jaunak buru gainean.</i>
<i>Goregi kantatzen baduk</i>	<i>Bainan beti orroit bedi</i>
<i>Ereman bitoria,</i>	<i>Nausi bat baduela</i>
<i>Promes dauat, galduko duk</i>	<i>Bizi ez bada zuzenki</i>
<i>Laster hire bizia !</i>	<i>Punituko duena.</i>
(San Kasteteneko andregaiak...)	(Bertute moralak)
<i>II. Sinesten dut Jainko Aita</i>	<i>V. Gure kreatoraileari</i>
<i>Guziz boteretsuan :</i>	<i>Adorazionea</i>
<i>Guzien egilea da</i>	<i>Haren handiatasunari</i>
<i>Lurrean bai zeruan.</i>	<i>Zor zaion ohorea</i>
<i>Ikusten diren guziak</i>	<i>Bihurtzerat erakartzen</i>
<i>Berak ditu kreatu</i>	<i>Gaituen bertutea,</i>
<i>Eta ezin ikusiak</i>	<i>Bertute hortan zerratzen</i>
<i>Izaiteaz dohatu (bis)</i>	<i>Da relisionea</i>
(Apostoluen sinbola edo Credo)	(Relisionaren bertuteaz)
<i>III. Munduko jakintsunak</i>	<i>VI. Herioak mundu huntan</i>
<i>Eta haren argiak</i>	<i>Ez du nihor gupida :</i>
<i>Maiz tronpatzen tu gizonak,</i>	<i>Monarken palaziotan</i>
<i>Lilluratzen begiak.</i>	<i>Etxoletan bezala</i>
<i>Bainan fedea gidari</i>	<i>Sartzen da berdin ausartki</i>
<i>Hartzen duen guziak</i>	<i>Eta haren kolpeak</i>
<i>Ikusten ditu segurki</i>	<i>Badaramatza sotiilki</i>
<i>Jakin behar egiak.</i>	<i>Zahar eta gazteak.</i>
(Bertute teologalak)	(Gizonaren azken finak)

VII. *Denboraren balioa*
Ez daiteke estima.
Zerua da prezioa
Ixtant bakotxarena.
Hartaz ongi baliatuz
Heltzen dire zerurat,
Hura gaizki enplegatuz
Betikotz infernurat
 (Denboraren balioa)

VIII. *O umilitate saindu,*
Bertuten zimendua,
Saindutasunak zu zaitu
Betiko sustengua.
Zenbatenaz apalago
Bai datza ezarria
Hanbatenaz bortitzago
Da zimendu berria.
 (Umilitatea)

Argi dago (8+7) neurtitz luzea zatitzen dela bi neurtitzetan, bakoitza errimadun izanez. Sendi daiteke zein maite zuen Salvat Monho-k 8 eta 7 silabako erritmoa edo luzea edo zatitua.

"*Zerurako hats-gorapenak*" deitua "Pelegrinen airean" sortua da. Jadanik aipatua dut frantses doñuak azaltzen nituelarik. Egitura : (9-4-9-4-8-5-8-7).

Zeruan da ene herria :
Behar huntan
Biderant bat naiz etorria
Egun hautan.
Munduko distiadurak
Ez nau xoratzen ;
Zorionaren itxurak
Ez deus ditut kondatzen.

Gelditzen dira "*Hirur izen sainduan : Jesus, Maria, Josepen inbokazioneaz*" (7-6-7-6-7-6-7-6) lauko ttipia zortzi neurtitzetan jarriz eta "*Baketiarrren eta mendekariaren artean ihardukia*", hau egituratzen dela (9-8-9-8-9-8-9-8). Dakigularik azken honek airea daukala "*Avec les jeux dans le village*", argi eta garbi dago frantses kantua zortzi silabakoa dela aldizkatuz errima femeninoak eta errima maskulinoak, edo gazteleraz llano/agudo. Hala sortu dira gure (7+6), (8+7) et (9+8).

Jesus, Maria, Josep,
Beti behar tugu
Beneratu kristauek
Eta maiz aipatu.
Mihiz eta bihotzez
Aipatuz ardura,
Izen horien bidez
Heltzeko zerura.
 (Hirur izen sainduen...)

Gaizki aditurik legea,
Juduek uste bazuten
Adixkideen maitatzea
Zela xoilki manatzen,
Lege-emaile dibinoa
Garbiki da esplikatatu :
Egiatzko amodioa
Etsai berentzat manatu.
 (Baketiarrren eta mendekariaren...)

7. Bederatzi neurtitzeko bertsuak

Bederatzi kantuk osatzen dute sail hau. "*Madama Beltzunzeri*" eskainitako kantua egitura berezia dauka nahasiz bederatzi, zortzi eta lau silabako neurtitzak : (9-8-9-8-4-4-9-8-8) errimak banatuz (a b a b c c b d d) ereduari, nahasiz errima gurutzatuak eta errima parekatuak. Holakorik ez da hanitz ikusten euskal literaturan.

Eskual herrien edergailu
Parisetik etorria,
Zer inkontru gaixtoz daukuzu

*Doluan utzi herria ?
Zer bihotz min !
Zu Ernanin !
Mineta oroz onetsia,
Jin zite gure herrirat
Guzien kontsolatzerat.*

“Dans cette étable” doñuarekin hiru kantu dauzkagu, bat profanoa “*Nafar goxoan*”, beste biak elizakoak “*Justuen bozkarioak*” eta “*Aingeruez*” (5-6-5-6-6-6-7-6-5) egiturarekin bertsu bakoitzean eta hori hiru kantuetan lehen eta bederatzigarren neurtitzak berdinak direla, bukaerak errepikatzen duela hasiera. Errimak gurutzatuak lehenik, parekatuak gero eta azkena lehen bezalakoa (a b a b c c d d a).

<i>Nafar goxoan</i>	<i>Hain da ezitia</i>	<i>Aingeru tropak</i>
<i>Trenpatuz bixkotxak</i>	<i>Jaunaren legea,</i>	<i>Zituen kreatu</i>
<i>Hartu ondoan</i>	<i>Barne guzia</i>	<i>Jaungoiko onak</i>
<i>Altxaturik bozak</i>	<i>Uzten du betea</i>	<i>Eta destinatu</i>
<i>Erragun bertsutu</i>	<i>Esperantza one</i>	<i>Gure gidatzeko</i>
<i>Kurruxa, plan, plan, plan</i>	<i>Kontsolazionez.</i>	<i>Eta beiratzeko</i>
<i>Gure xangrin guziak</i>	<i>Ene gustu handia</i>	<i>Zerurako bidean</i>
<i>Diren ehortziak</i>	<i>Han dut ezarria</i>	<i>Etsaien artean</i>
<i>Nafar goxoan.</i>	<i>Hain da ezitia.</i>	<i>Aingeru tropak.</i>
(Nafar goxoan)	(Justuen bozkarioak)	(Aingeruez)

Azken multzo batean sar daitezke bost kantu, “*Orroitzapenak*”, airea “*Sur la marche du régiment du Perche*”, kantu profanoa eta bertzeak elizakoak, “*Bekatu mortala*”, “*Bekatu beniala*”, “*Bekatu kapitalak*” eta “*Sakramenduak*”, denak egitura berekoak : (9-8-9-8-8-8-8-7), kantu profanoan errimak banatzen direla (a b a b a c c c a), elizakoetan aldiz (a b a b a c c c b), azken errima bakarrik aldatzen dela.

<i>I. Mundu hunen hastapenetik</i>	<i>III. Jainkoa maitte duenari</i>	<i>V. Soldadoaren lantzak dautzu</i>
<i>Gure egunetaraino</i>	<i>Hutsik xumenak min dio,</i>	<i>Jesus, sahetsa ideki :</i>
<i>Kain infamearen ganik</i>	<i>Aitetan den hoberenari</i>	<i>Zauri sakratu horrek ditu</i>
<i>Ez da jautsi Pinet baino</i>	<i>Damu egiten baitio;</i>	<i>Gure minak sendarazi.</i>
<i>Munstro itsusiagorik,</i>	<i>Erori den bezain sarri</i>	<i>Zauri hortan zaizko sortu</i>
<i>Robespierre eta Jourdan</i>	<i>Altxatzerat du egiten,</i>	<i>Sakramenduen grazia,</i>
<i>Gizonen etsaiez landan</i>	<i>Nigar karatsak ixurtzen</i>	<i>Biziaren iturria,</i>
<i>Ez Frantzian, ez Europan</i>	<i>Penitentzian bilatzen</i>	<i>Zorionaren bahia</i>
<i>Hain fama gaixtoagorik.</i>	<i>Zenbait erremedio.</i>	<i>Gizonen arrazari.</i>
(Orroitzapenak)	(Bekatu beniala)	(Sakramenduak)
<i>II. Bekatua, mustro lazgarri</i>	<i>IV. Orroit hadi urgullutsua</i>	
<i>Gure arimen etsaia,</i>	<i>Ixtil puxka bat haizela</i>	
<i>Hire ondolik duk etorri</i>	<i>Lizunkeriak orhatua</i>	
<i>Herioaren premia !</i>	<i>Hil bezain sarri ustela.</i>	
<i>Hik duk mundurat ekarri</i>	<i>Bizian adimendua</i>	
<i>Arimen etsimendua</i>	<i>Ilunbez duk estalia,</i>	
<i>Izurriaren kotsua,</i>	<i>Eta hi haizen guzia</i>	
<i>Aire hain korronpitua,</i>	<i>Ez deusetarik hasia,</i>	
<i>Gaitz guzien ibaia !</i>	<i>Amets baten itzala !</i>	
(Bekatu mortala)	(Bekatu kapitalak)	

8. Hamar neurtitzeko bertsuak

Bi kantu, biak elizakoak. *"Jaunaren otoitza"* deitzen da lehena, zortzi, zazpi eta sei silabako neurtizez egina : (8-8-8-8-7-7-6-6-6-6) gero eta ttipiangoak direla neurtitzak simetria zainduz : 4-2-4 ; bai neurtitzetan eta bai errimetan (a b a b c c d e d e) gurutzatuak lehenik, parekatuak gero eta gurutzatuak azkenik.

*Zeruan zure egoitza
Egiten duzun Jainkoa,
Egin daukuzu emaitza
Ezin estimatuzkoa :
Zure haurtzat gaitutzu
Garen guziak hartu
Eta irakatsi
Erran dezagula
Non nahi goraki
Aita zaitugula*

Bigarren kantua oso bitxia da biltzen baititu lau, bost, sei, zazpi eta zortzi silabako neurtitzak honela antolaturik (6-7-7-8-6-4-5-4-5-8). *"Munduko gauzen ez deustasuna"*-ren adiarazteko hautatu du frantses aire bat "Tout n'est que vanité" gaiari doakoan errimak banatzen direla (a a b b c b c b d d), bi aldiz parekatuak gero gurutzatuak eta azkenik parekatuak.

*Munduko gauzetan
Ez hunen agintzetan
Ez du nihork aurkitzen
Zorion faltsorik baizen.
Beti da gezurti
Ateratzen.
Halere beti
Edireiten
Ditu gizonak
Fidatu nahi zaizkonak.*

Argi eta garbi dago errima hanitz behar zituela Salvat Monho-k laukoetan ere bat baino gehiago baliatzen baitzuen. Eta ikusi dugun bezala are gehiago seitik hamarrera doazen kantuetan. Halere ez dirudi errima arraroen bila joan dela.

Lafitte-k jujatu du olerkaria :

"Cependant Monho est loin des complications de certains versificateurs scrupuleux ; il ne recherche pas la rime riche, il ne craint pas les hiatus, il ne pratique systématiquement ni l'élosion ni la synérèse. Il use, selon les besoins, de formes contractes et de formes complètes."

Errimari dagokionez eta Lafitte-k aipatzen dituen bertze gaietan berdin, Salvat Monho jokutzen da bertsulariak bezala.

1) Anitzetan aski zaio asonantzia, bokal batekin bakarrik, hala nola ibili/hasi, dabilta/tringilka, duela/inporta eta abar... dakielarik ere bokalaren ondotik datorren kontsonantea balio gabekoa dela eta beraz *u* asonantziarekin doaz glub/batzuk eta *e* asonantziarekin Josep/kristauek.

2) Ontzat hartzen du bertsulariek bezala kontsonanteen arteko kidetasuna.

- leherkarietan	k/t	<i>naiteke/naute</i>
	k/g	<i>barroki/ongi</i>
	t/d	<i>sortu/du</i>
		<i>exatu/hastandu</i>
- dardarkarietan	rr/r	<i>berri/aintzindari</i>
- sudurkarietan	m/n	<i>ama/birjina</i>
		<i>ama/garbiena</i>
	n/m	<i>ona/arima</i>
- txistukariekin	z/s	<i>geroz/glorios</i>
		<i>galarazi/irakatsi</i>

Aise erabiltzen ditu errima gramatikalak bai aditzekin : *ikusi/nahasi, segitzen/pentsatzen, utziko/ahantziko, limatu/hedatu*, bai atzizkiekin : *oilaskotaraino/elizaraino, Bardoztarrek/Jainkotiarrek, zintzurrak/bazterrak, bidean/aldean, aintzinetik/katiximatik* eta bertze..., baina ahal hori emaiten dio hizkuntzak.

Orotara, Monho kantu egilearen baitan datza bi ohidura. Lehena, aspalditik datorrena bertsulariena, lauko neurtitz luzedunak baliatuz bereziki lauko ertaina (8+7), eta lauko ttipia (7+6), baina denbora berean XVII. mendeko olerkariaren metrikari jarraitzen zaio, errima parekatuak erabiliz.

Bigarrena da elizako kantuekin hasi zen bezala, atzerrietako, bereziki Frantziatik jinkako aireak hartuz moldatzen direla kantu berriak erabiltzen direlarik errima parekatuak, gurutzatuak edo besarkatuak. Monho-ri esker badakigu zein diren doñu horiek, bi bederen kantu latinetarik hartuak, gehienak, dirudienez, frantses kantutegietarik. Horretan neurt daiteke frantsesaren eragina, bereziki XVIII. mendean. Badakigu hasia zela XVII.-ean, baina eragin gehiago ukanen du ilustrazio garaietan eta iraultza denboran, Salvat Monho lekuko.